

ERKIZIA'tar DOMINGO O. P.

Martiri Agurgariaren

— BIZITZA —

Albisu'tar Iñazio Jesulagunak

euskeratu du



DONOSTIA

IÑAKI DEUNAREN IRARKOLA.— GARIBAI, 28


1927

ATV

26601

JBND

RC 10W



Copyright © 2000 by J.B. Norton





Erkizia'tar Domingo O. P. Aguiría

1921
MUNICIPIO DE
SANTO DOMINGO
FUNDACION

M-62848
F-63639

ATV
26601

ERKIZIA'tar DOMINGO O. P.

Martiri Agurgañiaren

— BIZITZA —

**Albisu'tar Iñazio Jesulagunak
euskeratu du**



DONOSTIA

IÑAKI DEUNAREN IRARKOLA.— GARIBAI, 28

1927

Nihil obstat:
Joannes Josephus Goicoechea, S. J.


Imprimi potest:
Severianus Azcona, S. J.
Praep. Prov. Castell.

Imprimatur:
El Obispo
Vitoria 13 Junio 1927.

OARÁ.—Bederatziuren eta Abestiak irafi ta argitaratzeko baimena, *bakarean erabiltzeko* (uso privado) emana da.

EGILEAREN AITORPENA

Irañkitzaz Elizak emandako araudi-erabakiak on-
tzat aíturik, Egileak Erkizia Aguígañitzaz eginda-
ko idaztiai giza-almena besterik ez dietela ematen
aitoítzen du, Eliza Done Katolikoaren aburu utsez-
inpean osoro jañirik.



Ezeizilgo elizaren aldare nagusia

E'REZIL'DARAI

Zuentzat eta, zuen bitartez, euskaldun guzientzat euskeratu ta egin da idaztitxo au Loyola'ta' Inazio Deuna jaio zan etxean.

Badakizute euskaldunen Aita eta Zaindari onen seme jesuitak, batez ere Loyolakoak, gere biotzetan erabili bea' ditugula beti gure Aitaren erkideak. erkideakin batera beren eta gure Aita Deunaren eta Xabie'ta' Prantzisko Deunaren izkera garbi zoraga'ia. Bai ete da inun, betiko suga'etara ain gutxi ta betiko atzeginetan ain lagun asko, batz beste, eraman dituan izkuntzarik?

Loyola'ta' Inazio, Xabie'ta' Prantzisko, Japongo Martiri Aszensioko Martin Deunen, eta Be'itoxoa'ta' Balentin Txina'ko martiri Zoriondunaren izkera samu' eta gozoa erabili zun umetan eta gaztetan beste mixiolari sutsu eta zi'ropa (martiri) guztiz a'riga'i batek ere: *Guzman'da' Domingo Deunaren seme sintzo Erkizia'ta' Domingo Aba agu'ga'ri E'rezil'darak*. Eta euskaldunak etzeukaten beren erkide argi ta agu'ga'i onen be'irik euskeraz. Begira ze'fgatik atera degun bizitz labu' au.

Beste norbaitek ere bazeukan, noski, lan au egin

naia ; eta, beař bada, guk baño obeto egingo zun, egin izan bazun ; baña ez guk baño gogo biziagoa- rekin. Onelako lanetarako gogo bero ta sutsua era- biltzen ez genuke iñoren atzetik ibili nai. ; Ez giña- ke izango gure Aitaren semeak !

Jakin orduko, bada, lenbizi Erezil'en eta gero Azpeiti'n mixoi jai edeř aundi bat egin, eta jai oře- tan, oraiñ arte oso gutxik ezagutzen duten Eřkiza' tař Domingo O. P. mixiolari bikain eta martiri aguřgařia, Erezil'go semerik argi ta maiteena eza- gutu erazi beař dala, ekin genion lanari, ta azaldu degu, laburki bada ere, bere bizitza.

¿ Ta zeñi eskeñi gure lantxo au Erezil'go eřiari baño obeto ? Ezagunak, eta ezagunak ez ezik, go- ragaři ta maitagařiak dira guretzat Erezil'go Apaiz nagusi ta bere lagun langile zintzoak. Otoitz-Bia- guntza lagunak, eta, batez ere, Luistař eta Maria' ren alabak ; eřiko Agintari ta eřitař guziak.

Zuei, bada, euskaldun jatořak zeraten Erezil'go seme alaba guzioi, eta zuen bitařtez, Domingo Deunaren seme Domingotařai ta euskaldun gu- ziai, eskeintzen dizutegu liburutxo au ; Erezil'go Eřkizia'tař Domingo O. P. ziñopa (martiri) aguř- gařia gora goratua izan dediñ !!

AGIŘE'TAŘ JORKE S. J.



Uste danez, agurgrafia bataiatua izan zan aña.

ERKIZIA'TAR DOMINGO

ZORIONTZUARI

(A'rgarate'tar E'k S. J. abesteko egiña.)

Talde nagusiak :

E'fexi'ldar danok abestu dezagun :

«E'fexi'ld, E'fexi'ld ! alaitu ta abestu».

Domingo Erkizia'k—eguzki be'riak—

E'fexi'ld e'fia argitu du.

«E'fexi'ld, E'fexi'ld ! alaitu ta a'rgitu.

Ahapaldiak :

I

Ernio-mendiñ aritz aundi ta mardulak
aiñ ugari !

Baña aundiena Zu, zeruraño zuazen
Domingo ori !

Nere e'fi : Nigandik igo : zeruraño
igo adi !

II

Ara txabo'etan ardiak sa'turik...
alai daude :

Zure biotz ortan Yapon'dar zintzoak
poza dute.

Zaindu, a'fen, E'fexi'ld : gure artzai ona
izan zaite.

III

Ekaitzan ez dira Ernio'ko gurutzak
ikaratzen :

Erkizia biotz sendo, gurutz oyek
egin-zuten.

Nere Eréxiĭ ! Ekaitz beltzan gurutz oyei
begira, aġen !

IV

Erkizia ! oraiñ nun nai esaten dizut :
«Zoriontsu».

Euskaleġi amak gozoro, biotzez :
«Ama nauzu».

Jaungoikoak Zuri begira : «ġ Oi ! Seme
neretzat Zu».

Talde nagusiak :

Eréxiĭ'daġ danok abestu dezagun :

«Eréxiĭ, Eréxiĭ ! alaitu ta argitu».

Domingo Erkizia'k—eguzki beġiak—
Eréxiĭ eġia argitu du.

«Eréxiĭ, Eréxiĭ ! alaitu ta argitu».

Ernio sendoak erantzuten du.

ERKIZIA'TAR DOMINGO, O. P. ABA AGURGAÑIAREN BIZITZ LABURRA

I.—UME ZALA : JAYOTERIA : GURASOAK

Bada Tolosa'tik Azpeiti'ra bidean (eñi ontatik amañ kilometro) Gipuzkoa'k ditun txoko zoragañienetan zoragañienetako bat. Bertantxe agiri da Eñexil'go eña, Eñnio'ren oñean eserita, lañotaraño luze dan arkaitz-mendi aren sendotasuna bere semeai erantsi nairik ba'lego bezela. Ayetxek bai ikusteko alderdiak ! Tolosa aldetik datozen berezibil bat baño geyago gelditu izan oi dira, Bidani'ko mugatetik aterata batbatean Eñexil ikustera el-tzen diranean, ze ikusi ere bada-ta. Zenbat egon ote diran gain artan, lorategi bat bañon politago diran mendi-babes ayei begira eziñ asperturik ! Eñnio'z bera ta beste alde guzietan zugazti mardulak, pagodi, gaztañari, ariztegi ta era ugarizko zugatzak ; garoleku ezeak, baso ta zelai, soro ta belardiak eta an-emen banaka-banaka, galdurik bezela, uso txurien antzeko baseñi edefak... eta an bean, soro-zelai txukun ayen eñdian, eleiz luzeen inguruan bilduta etxe zuri mordoxka bat, Eñexil, Eñkizia'tar Domingo Aba O. P. Agurgañiaren jayotefi

zoriontsua ; Japon'go mixiolari ta ziñopa (martiri) ospetsu ura softu zun efi alaia.

Orain irureun da geixeago urte, gauñ bezelakotsua izango zan, noski, Eféxil gutxi gora-bera ; etxe ta biztanle gutxiago izatea balitzake, Gipuzkoa'ko eñietan beti ezagungafi bazan ere. Orduan, oraiñ bezelaxe, zuzen eta gogoñ jasotzen zun bere burua Eñnio oroigafiak eta antxe beragandik zintzilika gauñ beziñ edeñ zegon Eféxil, zugaitz, baso, zelai, soro ta lorategi politez apainduta. Antxe jayo zan, bada, Otsaila'ren 8'an (1), 1589-gaen urtean, Domingo batayoan izendatu zuten Eñkizia'ta' auña, gero Jaungoikoaren guda-gizon, Eñnio bera baño ere sendoago izan beañ zun euskaldun bikaiñ ura.

Eñiko idazlari edo eskribau zan bere aita ta Eñkizia'ta' Martin Ibañez zun izena. Gure Domingotxo'ren auñtasuneko ta umetasuneko beñirik ez da oraiñ arte arkitu ; Bildain zeritzan, eta gauñ bertan ere ala deritzan, bere jayotetxean igaro zitun urte samuñ ayek, guraso laztanen añdurapean. Bertantxe garai artan, bere ama Lete'ta' Maria Perez'en aotik ikasiko zitun, gure euskera gozoan, lenengo otoitzak, «Aita gurea», Jesus'ekin esaten eta «Aguñ Maria» zeruko Amari ; eta bertantxe beste Eféxil'da' lagunakin batean azi zan, beti ere Jaungoiko gure Jaunaren bilduñ atsegingañian.

(1) Domingo Aguiñgafiaren bataioko agiria Eféxil'go Elizan dago.

II.—DOMINGO DEUNAREN SEME

Jaungoiko gure Jauna txiki-txikitandik asten da batzuetan bere lagun aundi laztan izan bea' dute-
nai neke-miñak bidaltzen edo biotz erdi-erdi-an dau-
katen gauza kuñunen bat lagaerazitzen. Onelaxe
ekin zun gure Domingo'rekin, oraindik urte gutxi-
koa zalarik, Maite-maite zitun, noski, bere Erexil,
lagun, etxe ta etxekoak. Baña artzaiak ardiai txistu
egin oi dien antzera, Jesus Artzai Ona ere Domin-
go'ri biotzera ots samur eta biguñez deitzen asi
zitzaikion, guzi ayek laga ta Bere ondoren ja'ai-
tzeko esanaz, au da, praile sartzeko. Baita gazte-
txoak Artzai Onaren dei au laister entzun ere. Be-
realaxe gauza dan-danai agur egin zien : agur Ere-
xil'go alde'rdi alai; agur lagun eta adiskide txi-
kiai ; agur Bildain maiteari ; agur senitxoai ta agur
aita amatxo laztan biotzekoai, agur, bea' bazan,
beti-betiko !

¿ Baña noraño zan dei ura ? ¿ Noa ote zijoan gure
Domingo aiñ gazterik ? Jesukristo'ren ondoren ;
Donosti'ko San Telmo zeritzan lekaide edo praile-
etxera, aruntz juatea Jainkoak nai zun da. Bertan-
txe artu zun bere izeneko Domingo Deunaren seme-
jantzia 1604-ga'eren urteko Garagañila'ren 25,an.

Emen ere praile izan zaneko lenengo urteezaz
be'i aundirik jakin gabe arkitzen gera. Japon al-
dean egin zun, Be'iotxoata' Balentin'en Anai
aundi onek, mixiolari-bizitz be'rdingabea, aurki
ikusiko degunez ; bitartean dakizkigun be'i apurak

bakafik adirazi beaf. Saferan bertan izan zun bere Aita Domingo Deunaren seme ona izateko asmo sendoa ta eraman zun beti asmo ori begi-biotzean josita. Urte bete buruan, Eskeintzak (Profesea) egiteko garaya eldu zitzayon. 1605-gaŕen Garagaŕila'ren 6'an, bada, aŕatsaldeko iruetan, amasei urte besterik etzituala, erabat Jaungoikoarengana eskeñi ta lokaŕi biguñ ayekin lotuta geratu zan (2). Ordu artatik oso-ososik Jainkoarena zan; Jainkoari eskeñitako aŕosa zuri usai-gozoduna.

(2) Ona emen Eŕexil'daŕ Agufgaŕiak Donostia'ko San Telmo zeritzaion Domingo'taŕen etxean Jaungoikoari egindako Eskeintzaen Agiria: «El 6 de Junio de 1605 á las 3 de la tarde hizo profesión para Choro Fr. Domingo de Herquicia, hechas las Informaciones de costumbre conforme al Breve de Su Santidad, siendo General el R. P. Mtro. Fray Gerónimo Javier de España, el R. P. Mtro. Fray Pedro Contreras y Prior de esta Ct.º de San Telmo de San Sebastián el R. P. Fr. Gerónimo de Ercilla, Maestro de Novicios. Fr. Pedro González es hijo legítimo de Martín Ibañez de Herquicia y de María Perez de Lete, natural, vecinos y moradores de la villa de Regil. Profesó de edad de 16 años y cinco meses, y por la verdad lo firmaron los infrascritos á 29 del mes y año, fué bautizado á 8 días de Febrero de 1589.—Fr. Gerónimo de Ercilla Prior.—Fr. Pedro González.—Fr. Domingo de Herquicia.»

Apaiz egiteko asmoz nola saftu baizan, asi zan ofetarako beaf diran ikaskizunetan, Eskeintzak eginda gero. Oso buru-azkaaf eta afigitsua zan berez ikas-lanetarako ; ta ikaste iraunkoafaren bitaaftez, azkaaftasun ori landuaz eta landuaz jun zan beti aufera.

III.—MANILA'N JAUNAREN USAIA ZABALTZEN

Bein lekaide (praile) saftzen dana, edozein tokira, naiz eroso izan, naiz ufuti, abiatzeko geftu dago Jaungoikoagatik, bere efi ta sendi (pamiliari) ere Jaungoikoagatik bein aguf egin zien ezkerro. Manila'ko uria benetan ufuti dago, Pilipinas deritzayen itsas zabalean galdurik bezela arkitzen diran luf-zatietako batean. Gure Erefxil'go seme jator au aruntz bidali zuten, ba, bere lekaide-nagusiak. ¿Noiz, ordea, edo zezaz? batero ez dakigu. Ori bai ; Jesukristo gure Jaunak esaten dun, lakari gañean agirian jaftzen dan afigizari piztuaren eran, laister asi zan bere jakintza ta donetasunezko (santutasunezko) afigi-izpiak nunaira zabaltzen.

Apaiz eginda bere eskuetan Jauna lenengo aldiz jaso zun ezkerro, bi lekutik batez ere afigi ederki egin zun : Jakintzazko irakastolatik eta iztokitik. Manila'ko ikastetxe nagusian irakasi zun Jakintza (Pilosophia), guzien txaloak beretzat, nai ez izan afen, irabaziaz, eta izlaritzan befiz, Manila'n ziran izlarietan bikain eta gaftsuenan zan. Iztokirako Jainkoak apaindu zun berotasun eta kemen aun-

diaz ; augatik Erkizia'taŕ Domingo O. P. Abaren itzaŕdi beroak aditzean bekatariak on biuŕtu, otzak berotu, epelak kixkaldu ta biotz-gogoŕak samuŕtu egiten ziran.

Alaz ere, Jaungoikoaren izena dan-danai ezaguerazitzeke zeraman egaŕia ezin zun ase ; Manila ere, uri aundia zalarik, etzan bere biotz kementsua betetzeko nai beziñ aundia. Garai artan Japon deritzan luŕtalde edo naziotik (emen oraindik etzuten gutxik baizik Jesukristo ezagutzen, geyenak etziran kristau-eta) ikaragaŕizko beŕiak zetozen egunero : Goŕoto beltza zeukatela sinisgabeak kristau-entzat, eta oek, era askotako eriotz gogoŕez, Jesukristo aitoŕtzen zutelako iltzen zijoaztela.

Beŕi oek Manila'ko izlaririk bikañen onen entzumenera, au da, Aba Domingo'rengana eldu ziranean, bilduŕtu ezezik, alderdi ayetara jun, eta sinisgabe ugari zeruratu, ta, azkenik, zañetan zera-mazkien odol tanta guziak Jesukristogatik ixuŕtzeke asmo ta naitasun bizi-bizian kixkaldu zioten biotza.

Berea!axe, lenbaitien, zlegin guziak egin zitun, Nagusiengandik Japon aldera juteko baimena irixteaŕen eta baita iritxi ere nai zuana. Begira nolako bidealdia izan zun bere lagunakin batean.

IV.—JAPON ALDERA ITSASOZ

Bide òntako gauza guziak Erkizia'taŕ Aba berak idatzi edo eskribitu ziozkan Pilipinas'en bere Le-kaideŕpuru (Probinziala) izan zan Aba Nagusiari,

Japon'a eldu bezin laster, 1623-g. urteko Azaroaren 13'an. Ayetatik dakizkigu itsas-bide artan erabili zituzten zorigaitz eta estutasun goñiak; etziran, ba, alegia, garai artan gauñ beziñ eñez itsasoz jun-etoñiak egiten; ; bai zera! orduko itsasontziak oraingoak baño kaxkañagoak eta txañagoak izanez gañera, aizeak bultz eginda bakañik ibili oi ziran; aizeak, beñiz, askotan ez etoñi egiten zun, eta bes-tetan beañ etzun aldetik jo.

Irten zan, ba, Erkizia'tañ Aba O. P. Manila ta Pilipinas'tik beste Aba onenetako batzuekin, 1623-gañen urtean. Itsasoan sañtuta laister itsasontzian ura sañtzen asi zitzaizkien, nunbait ol tarteko zulo ta ziriztuetatik. Oñezaz gañera ekaitz zoñotz batek ugañte edo luñalde batzuen inguruan jo ta, utzi zuten kayera biuñtu erazi zitun. Ordu erdi bat buru, ordea, adiskidetu zitzaizkien itsaso asañetua ta auñera jañai zuten egun batzuetan aize ongilea bultzari zutela. Baña ara nun beñiro auñeko ura bañon ekaitz gañatzagoak, Sonbor zeritzan Txina eñtzera botatzen dituan. An kayerañtu ziran ura ta eguñña añtzeko asmoz, utsik zijoatzen da; baña eguñfik ezin bildu, zugatzik toki ayetan etzalako. Azkenean itsas-ontzi zañ bat arkitu zuten eta andik atera zituzten beañ ziran ezpal eta eñekiñak. Sañtu ziran uñengo egunean urez bañura ta bañura, jakiak ere nunbait erosi beañ zituztela-ta; baña bai ðdamu izan! urak zerañan indañez, ba, aruntz eta onuntz zebilen urontzia, orbel osto bat beziñ eñex, guziak ondatzeko zorian.

Baña oraindik neke oek baño geyago samindu zun gure euskel mixiolari befiaren biotza beste us-tegabeko zorigaitz batek. Txina'ko baztef inguruan nola bai zebiltzan, ango ontzitalde bat aurkeztu zitzaikien, etsayak edo ziralakoan. Jafi zuten orduan gureen ontzi-nagusiak ontzigañean suskilu edo arma bat, polboraz beteta, Txina'tafai botatzeko; bañan ara nun suskiluak su artzen dun, inork nola ezdakiala, ta zaft egin eta Erkizia'taf Abaren lekaide (praile) lagun bati anka biak moztutzen dizkion. ; Ura lana ! Lekaide (praile) on gizajo ura izugafizko oñazen artean, baña Jainkoari guzi-guzia alaiki eskeñiaz, il zitzaizkien. Onelaxe ekin zien mixolari bikaiñ onek, sinisgabeak zeruratzearen, lan ikaragafi ayei.

Noizbait ere, Jaungoiko gure Jaunak aize ona bidali ta, jo zuten opatutako Japon eftza. Saftu ziran, ba, Satzuma zeritzan tokira, 1623-gaen urteko Garagafila'ren 19'an.

V.—KANGOSIMA'KO AGINTARIEN AUREAN

Ufengo egunean Erkizia'taf Aba ta itsasontzi-nagusia Kangosima'ko urira abiatu ziran, bertan gel-dituko ote ziran edo ikustera. Baña ze afera egin zizkien uritafak ! Alde guzietatik befi txafak kristau ziranen kalte. Juten dira uriko Agintarietara ta ayek, befiz, bota berealaxe andik eta Nangasaki'ra aldegiteko. Erkizia'taf Abak esan zien, urontzia zaft egin da zeukatela ta ezin zitezke la abiatu.

Ayek, ordea, Nangasaki'ko Agintarientzat eskutitz (karta) bat eman eta urontzi txiki batzuetan juteko agindu ta bidali zituzten itsas-aldera.

Bertan egoterik etzeukaten da, zeñ egin estuasun artan? Erkizia'ta Abaren buru-azkañ beaña izan zan bai. Eldu euren itsasontzira ta ango gauzarik onenak bildu saritzat emateko, ta biurtu ziran lengo Agintarietara. Oek sañi ayek ikusita, oraingoan edeñki añtu zituzten eta ongi bidali ere bai Nangasaki'ra, ango Agintariari, ondo añerazi zitzañ, eskutitz obego bat egiñaz.

Erkizia'ta Aba oraindik Kangosima'n geratu zan beañ-beañenezko egingizunak bukatzen. Agoñaren 24'an jo zun, ba, Nangasaki'ra, bereetakoren bat arkitze ote zun ikus naiean. Bat bakaña arkitu zun; iru gauetan, izkutuan (lekaide edo eñlijiosoak zirala etsayak ez ezagutzeañen) gauza guziaz itz egin zuten biak eta Domingo Deuna Satzuma'ra gero biurtu zan .

Emen ere neke-lan bat eramán beañ izan zun Agintarien aldetik; baña laga zioten beñiro Nangasaki'ra biurtzen. Alde guzietatik gaitzbideak inguratzen zuten eta oraingo bide ontan ere etzioten txiki-txikiak itxodoten. Bazijoazten itsasoz urontzi txiki batean eta bat batean eta uste gabe azpiko ol bat puskatu, ta urez betetzen asi zitzaizkien ontzia, urperatzeko zorian. Jaunari eskeñ, auñerago zijoañ beste ontzi bati su-argiz deitu zioten eta bere bidez zorigaitz artatik irten ziran.


Zenbat naigabe Jesukristoren lantegira eldu be-

zin laister! Ofelaxe gertutzen zijoan mixiolari aundi au geroz-ta gurutze astunagoa eramateko.

VI.—NANGASAKI'N LENENGO NEKE TA MIXIO-LANAK

Ufila'ren 14'an sartu zan beñiro Nangasaki urian. Emen asten dira bete betean gure Erkizia'tar' Domingo Agufgañiaren amar' urteko mixio-lan afiga-ñiak, beoyen ondoren bere buru ta odola ere Jaungoikoagatik emateko. Nangasaki'ra elduta egun gutxi baru, eñi txiki batera baztertu ta an zegoan bere anai lekaide (praile) batekin Japon'go izkuntza ikas-teari ekin zion.

Baña lenago, bidera irten zitzayon estuasunaldi bat eraman beña izan zun. Datozen gertaldi guziak ondo ikusiko baditugu, jakin beagu añez garai artan Japon'go Agintari ta aundizkiak asi zirala kristau ziran guzien aurka (kontra) ikaragafizko erasoaldiak egiten, eta kristauen izena bera ere Japon'dik atera naiean. Begira oraingo au nola izan zan: Eñi guzien Buru edo Eñegeak agindu zun, Españi'tar' guziak alderdi ayetatik alde egin zezate-la; baño irten baño len danak beren Jaungoikozko sinismena ukatu beñ zutela; bestela oñazez ilko zituztela. Agindu au zabaldu zanean, bat edo bestek ots egin zun Erkizia'tar' Aba ere agindu aren men-pean zegola. Orduan Eñexil'dañak galduko ezpazan, bertakoak bezela jantzi ta, geñian ezpata zula, kafikaz-kafika ibili beñ izan zun. Gero ateraldi edeñ bat asmatu zun. Uri artara nola etofi-beña baizan,



Erezil'go Eria.

ARISMA

iñork ezagutu etzezan, jun zan Agintari eurengana, ta Nanagasaki'ra etofi ziran bezela beste toki batera abiatzeko baimena eskatu ta iritxi egin zun. Irten ziran, ba, urontzian kayetik ilunabarafean eta atzetik (erabakirik zeukaten bezela) beste praille ezagun bat zijoan ontzi txikiagoakin, ufuti xamafera ziranean bertan sartuta, iñork ezagutu gabe, Nangasaki'ra befiro biurtzeko. Baita ofelaxe egin ere gau ixilean.

Erexil'go seme azkafaren ateraldi oni eskef orain Nangasaki'n izkutu xamaf egon zitezken, Agintariak junda zirala uste zuten da. Alaz ere etzegoan praille--soñekoz jantzita ibiltzerik, bertakoak bezela baizik. Baña, Efkizia'taf Aba berak digunez, jantzi au ere beartsuenak eramane oi zuten bezelakoa zan eta lastozko azpi bat besterik etzuten onetakoak. «Eman beartasun aundia daukagu, dio berak, ta bestetik diru-banatze beaf-beafekoa; efitalde bategatik bestera itsasoz urontzian aldatu beaf degu. Egun batzuek efitetan iraun beaf izaten dizkigu, ta kristauak, befiz, afera ona eginafen, beartsuak dira gizaxoak eta eurentzat ere ez dute askotan. Izkuntza ikasten ari geran bitartean zailago zaigu au dana; gero, Jainkoa lagun, ezezago alkartuko gera».

Befi oen ondoren, Mezatarako batez ere beafenezko gauza batzuek eskatzen diozka Efkizia'taf Abak Pilipinas'ko Aba Nagusiari: Meza-liburu, ardo ta apaiz-jantziak. Onen ufi ibili beaf izan zun mixiola ri ark, ez jateko, ez jazteko eta Meza Donea emateko ere gauzarik gabe; ta askotan bidez-bide gauez, gaizkile bat bezela, efeatxoetan busti, an erori,

emen eñistatu, arutzago ankako beatzak añi tartean odoldu, baita luña jo ta musu-ezuzak ausi ere... Baña Domingo Deunaren seme aguzgañiak ezpañetan ifi-pañe gozoa beti erabiliñaz alaitzen zitun neke oek danak. ¡Jaungoikoagatik zeramazkian da!

Laisteñ asi zan, bertako izkuntza oraindik gutxi besterik ez jakiñañen, kristauak zeruko bidean zuzentzen. 1624-gañen urteko Ilbeltza'ren 18'an, izugañizko erasoaldia etoñi zan Agintarien aldetik, Eñkizia'tañ Aba izkuntza ikasten ari zan alderdi aye-tan, kristau ziran guzien kalte. Etsaya bera baño gizon gaiztoago batzuk etoñi ziran kristauak aña-patu ta sinismena ukatuerazitzeko asmoz. Kristau gizaxoak, beñiz, bildu ziran Eñexil'go Abarengana, zeñ egin beañ zuten erabaki zezan. Berak izketan gutxi jakiñañen, altzun eran, adirazi zien sinismena beintzat iñola ere ez ukatzeko; ta guziak poztu ta bizkorturik utzi zitun, beañ bazan Jesukristogatik beren odola emateko, Jun ziran, ba, gizon zital ayengana ta baita Eñkizia'tañ Abak erakutsitakoa aitortu ere egin zuten. Agintari gaizto ayek, beñiz, esaten zien sinismena ukatzeko; bestela buñni gori batez gurutze bat egin eta suduzak moztuko zizkietela; kristau sendo ayek, ordea, gogoñ ezetz. Orduan Agintari gizatxañak, itzak laga ta eskuz asi ziran: beren guraso ta senañaren auñean seme ta emazteak lotutzeko agindu zuten, iltzera zeramazkitela uste izan zezaten. Beste guziak gogoñ eta bilduñ gabe egonañen, lau kristau erori ziran oraingo ekaitzaldi onetan, beren emazte ta semeak

eriotzbide artan ikusita. Au jakitean deitu zien Domingo Abak eta bere itzaldiaz beñero lauak bizkortu, ta gizon ayen auñera len ukatutako sinismena aitortzera bidali zitun. Alako indaía zuten Domingo Deunaren seme bikaiñ onen itzak eta donetasunak!

VII.—KRISTAU GEYAGO INDARTZEN

Japon'daíak kristauen aurka jasotako ekaitza geroz-ta beltzago biurtzen zijoan; ta Erkizia'taí Domingo Aguígañiaren ardura ta alegiñ guziak sinismenean eukitzen eta indartzen, geroz-ta aundiagoa zan. Etzan gelditzen; etzun lo beñik. zirudiñez; ez ta jan beñik ere, noski. Begira zeñ dion Manila'ra egin zun eskutiz batean (3): «Gauero etxez-etxe aldaketan ibili beña daukagu; au neke izugaña da, batez ere neguan, otz ikaragañiak, eluñak, lokatzak eta gau askotan ujolak emen izan oi dira-ta. Eta geyenean ankutsik ibiltzen gera, asko uñatzen gaituzten ari tartean. Batzuetan, beñiz, etxez aldatzea babañik naikoa balitz! baña eñitik eñira ere aldegin beña dago; ta ori gauez istinga (lokatzarte) ta ibiltoki gaitz gaitzak igaroaz, ebi jasa ta bisuts artean. Baña au guzia pozik eramaten da Jaungoikoagatik dalako. Nik egiaz esan

(3) Len, oraiñ eta gero jañtzen ditugun beñi guziak, Erkizia'taí Aba beraren edo bera ezagutu zun beste Abaren baten eskutizetatik artu ditugu. Egigizkoak dira, beraz.

dezaket, ez naizela oroitzen emen beziñ pozik iñun egon naizenik, kristau oen ontasuna ikusirik». Au izan zan Eréxil'daí Aguígaíaren bizitz osoa; era guzizko nekeak eramatea bere atsegiña; gau ta egunez kristau gaixoai laguntzea bere eginkizuna ta altziton siñisgabekerik geyenak zeruratzea bere egafi ta poza. Entzuten zun egunero iltzen zituztela asko ta asko, bereetakoak ere bai; bat surtan efeta; bestea ur irakiñetan egosirik; beste batzuk zatika ebakirik eta guziak oñaze beltzetan. Baña oek jakinafen Erkizia'tafak etzeukaten bere buruaz zezitekenaren bilduf antzik ere.

¿Bilduf esan det? ; bai zera! Berak euki ezezik, kendu egiten zien bildufa kristau guziaz, euren sinismenean indartsu irauneraziaz. Garai ontan Yangumi ta Isafai zeritzaten tokietan gogoitu zan geyago lengo ekaitza; baña etzuten kristauak sinismena ukatu. Eréxil'go seme maitagaíak sartu zien biotzetan Jaungoikoaren maitasun beroa ta bere bidez otoitz ugari egiten zuten, iltzeko garaian sinismenean sendo-sendo irauteafen. Mixiolari ospetsu arek pozten zitun, eta kristau jaqof ayek, etsaiak etofi zai egon gabe, eurak jeiki ta lasterkajuten ziran, Jesukristogatik iltzeko, besteak kixkaltzen zitun surtara. ; Aiñ bizi bizia zan, ba, ayen biotzeko berotasuna!

VIII.—MIXIO-LANETAN BETE BETEAN ETA AUÑERA TA AUÑERA

Beste eskutitz (karta) batean ederki adirazten diz-

kigu bere mixio-lanetako gora bera ta ibilerak : Onela dio : «Eman batera jo ta bestera jun amaika lanbide badabilte, gutakoren bat ařapatu naiean ; augatik izkutaketan beti ibili beař. Ara ze egin oi degun : ilundu ezkerro gaudenetik beste etxe batera aldatu, gau bat besterik ezin liteke, bada, etxe bakoitzean egin. Gero deitu gaituzten gaixoak eta etxe batera bildu oi diran kristau guziak alaitu beren aitorketak entzunaz. Lan onetan biltzen gera lo egin beař degun etxean eta ufengo goizean Jauna arřzeko asmoz datozen guzien aitortzak entzun, amabiak eta beranduago arte geyenean. Onela gabiltz gau eta egun, noiz atxituko (ařapatuko) ote gaituzten bilduř ta bilduř, ordu bat ere lasai ez daukagula...»

Auxe zan mixiolari bikaiñ onen biziera ta askotan eluř eta otz gogofez sumindurik ibili beař ! Eta urte ayetan iñoiz baño otz egiten zun geyago, berberak dionez, Pilipinas'ko bero aundiak Japon aldean eluř eta izotz biurtzen bai ziran. Beiñ batean, garizuma auřetik, kaskabařa ta eluřa ari zira-la, igaro beař izan zitun eřeka izoztuak eta eřista-tokirik labañenak. Eldu zan beiñ nekez-neke bustirik, auldu ta elbařiturik, kristau batzuen etxera. Oso pozik ařerarik onena egin zioten, noski, baña ogi ta ardo apuř bat besterik etzun artu jateko, barau-eguna zala-ta. Zenbat' eramankizun eta aia ere beti pozik Jaungoikoari eskeřak emanaz !

Egunetik egunera zijoan azi ta indařtzen Agintari gaizto ayek kristauen kaltetan jaso zuten era-

soa di gañatza, ekaitzaldian ibaiak azi ta azi jun oi diran bezela. Egunero eriotz ikaragañiagoak eta oñaze goñiagoak asmatzen zituzten. Begira Erki- zia'ta' Aba berak ezagunaratzen dizkigun batzuek. Eri batean badaramazte kristau guziak toki bate- ra ; artzen dute ur irakiñez betetako ontzi bat eta kristauei burutik bera pixkaka-pixkaka ur irakiña ixurtzen diete, miñ zoñotzago ta luzeagoa artu de- zaten. Au eginda, bertan dauden sendagiñe batzuk sendatzen dituzte eta beñiro oñaze artara biurtzen dituzte. Eziñ esan alako oñaze au ogei egun oso- etan eraman zun ogei urteko gazte batek eta garai onetan guzian «Jesus, Maria» beste itzik etzan bere ezpañetatik entzuten. Oñaze oetan zegoala etoñi zan ekaitz gogoñ bat eta boñeroak, gazte ura antxe gau batean uñzi ta, legoñeratu ziran ; baña, Jain- koak ala nai izan da, gau guzian etzion ebiak ikutu ere. Ogei egun buru añak gorputza beteta Nanga- saki'ra zeramaten sendatzera, bidean esanaz sen- datu ondoren lengo miñ artara eramango zutela ta soñ (gorputz) guzia puskaka ebakiko ziotela, sinis- mena ukatzen ezpazun. Gazte ark erantzun zien : Jaungoikoak nai dezala ni oñelaxe iltzea Beragatik. Baña urira eldu beziñ laister miñaren miñez oso po- zik il zan.

1632 eta 1633-gañen urteetan kristauei egindako erãsoaldia eraman eziña zan ; izan diteken gogoñe- na. Kristauen etsai zital, inpernuko eñomatañ ayek Eleizari bere asieran egin zioten erasoaldia beziñ gogoña zan Japon'dañak oraiñ egiten ziotena. Erki-

zia'taŕ Abak esaten digu bere eskutitzetan (kartetan) zenbat kristau eta nola iltzen zituzten ; ez dago berak dakarzkian gertaeratatik banaka batzuek baikizik jartzerik. Eunka ta eunka kristau bizkoŕek, mixiolarien bidez indarturik, Jesukristogatik bizitza ematea aukeratzen zuten. Eta nolako eriotzak ! Asko eguŕ bati lotu eta itsasora botatzen zituzten eta an gau luzeetan otzez izozturik iltzen ziran ; beste batzuei bulafetaraño sartu bizirik luŕean egindako zulo baten, eta gero kañaberazko zeŕa batekin burua ezur da guzti pixkaka-pixkaka zeŕatu egiten zien. Ebakitze onek egun bat, bi, iru, aste bat eta geyago iraun oi zuan. Beste askoi lepotik burua moztu egiten zien. Emakume bati teneza gofi batzuekin eskuko beatzat eŕetzen ari ziran, eta ; etzun ezpañik zabalgu ere aiots bat egiteko ! Onetan biotz gabeko gizon maltzur ayek aŕi kaxkaŕez aoa bete zioten eta beste aŕi zoŕotz batekin ortz guziak puskatu ta atera !!...

Onela zijoazen Japon'go kristautalde ayek Eleiz Ama Deunari ziñopa (martiri) ugari ematen, eta ematen mixiolari bikaiñen alegiñai eskeŕ. Erkizia'taŕ Domingo Abak amaŕ urte jardun zun erasoaldi onen eŕdian lan eta lan bere buruari atsedetik eman gabe, len baño geiagotan, Aduarte edeslariak dienez, Japon'go Eŕidi (Eŕeiñu) guzia igaroaz. Baze-bilen beti toki guzietan aruntz eta onuntz, izkutu-etan beti, iñork ezagutu ez zezan, oni lagundu, ari aitortzea entzun eta Jauna eman, beste bat indartu, arako bati itz onak esan... beti, artzai ona bezela,



Bildain baseña — Erezil'go soro eta zelaietan

ardi galduak bildu, sasietatik atera, otso amoratu-aren ortzetatik kendu... ; Zenbat eta zenbat lan egin zun Eréxil'go euskaldun Aguígañi onek, beste euskaldun Xabieñ'taí Prantzisko Deun aundirik eundienetakoak lenengo aldiz ateak iriki zitun Japon gogoangañi artan !

Garai ontan adirazi nai izan zun bere gurasoak ere zenbat maite zitun Jaungoikoagan ; eta oñela eskutitz bat egin zion aitari, bere Anai Beñiotxoa'taí Balentin Zoriontsuak bere «amatxo maiteari» gero-ko geroetan egingo zion bezela. Otoitz bero beroak, seme on bati dagokionez, eskeintzen dizkio lenengo. Bilduñ gabe adirazten dio gero, zenbat ari diran Jesukristogatik bizitza ematen ; eta bera ere noiznai etsaien eskuetan erori ta bizia galtzeko zorrian dagola, ta poz-pozik gañera, eskeñ eta ondasun zoragañi au iritxi ta lenbaitlen ludi ontatik zerura igotzeko. Eskutitz eder eta eztitsu au azkenean irakuñiko dezun.

IX.—ETSAI AMORATUEN ATZAPARETAN

Ta alaxe zan ; egun batetik bestera etsaien atzaparetan erori ta iltzeko zorrian zebilen. Etsaiak oraiñ arte kristau zan edozeñen ondoren ibili ziran ; oraiñ, ordea, jakiñik apaiz eta erlijiosoak zirala kristau indaía ta beroa sartzen zietenak, alegin guziak egiñaz, oen bila asi ziran. Erlijioso bat arkitu ta ekartzen zuanari uñe-diru mordoxka bat eskeintzen zioten. Esan beañik ere ez dago, uñearen otsa entzun beziñ laister gaiztoak asiko zirala baz-

tef guziak usmatzen. Egun batean saftu ziran Nangasaki'n Jesus'en Lagundiko Aba bat arkitu ta atxitzeko asmoz. Erkizia'taf Aba etzan andik uruti arkitzen eta, au jakitean, bi muti artu ta itsasoz aufera iges egin zun eguerdian, inork ezagutu gabe. Beste lualde batera eldu ziranean, bi muti ayek erabat lasto tartean izkutaturik laga zuten. Baña an ere etzegoan ondo ta itsasoz beste toki batera jo zun. Geratu zan itsas-ertz batean eta bertantxe erlijioso bila zebiltzan etsayak ezagutu zuten. Berealaxe itsasontzi-baztaf batean oyal zarakin estali ta izkutatu zan ; eta etsayak gero, an bertan ibiliafen, etzuten baztaf ura ikutu, an inor etzikela saftu-ta.

Entzun zituzten laistef Japon'go Agintariak eta Aundizkiek Erkizia'taf Aba'ren izen eta eginkizun arigafiak, eta beste edozeñen baño afaeta geyagoz bere bila asi ziran. Efexil'daf au zan, bada, ango langile domingotafen Buru-nagusia eta gutien Aita, baita beste Efljio'ko Mixiolariena ere «Prelado de ellos y Padre de todos, aun de los Ministros de otras Religiones» idaztiak diotenez. Ortarako ara zef asmatu zuten, afapatzen zunari diru asko eskeñiaz gañera : Efexil'dafa ezagutu zutenen bidez bere irudi bat atera, al zuten egokiena, eta irudi ura zabaldu, bere bitartez Erkizia'taf Aba efex ezagutzeko. Etsayak ain ernai ibiliafen, euskaldun mixiolariak, ayezaz pafe egiñaz bezela, arkitzen zun beti ayen lokafetatik nola iges-egin. Saftan bere ondoren ibili zirala, dio Erkizia'taf Aba be-

rak ; baña batzutan lastefka ta bestetan, Atanasio Deunaren antzera, leize ta artzuloetan sartuta igesegin zula. Egon beaf izan zun egun askotan ez euzki ta ez ilargiren argitik ikusi gabe ; gantzarekin, olioaren orde, koipetu ta igortzitako ogi kixkuña besterik jateko etzula, ta au befiz, Jainkoak ala nai ta, bestek emanda.

Baña alako baten etsayak berak erakutsi zien atxitzeko bidea. Eskutaratu zuten Eréxil'go semea ezagutzen zun kristau bat, eta dirua eskeñiaz egiñalak egin zituzten Erkizia'taña nun zegoan azaldu zezan. Kristauak, ordea, aorik zabaldu ere ez. Loxintxaka ezin zutela ikustean, asi ziran indahez eta oñazeak emanaz ; eta esanerazi egin zioten. Zakuñ amofatuak bezela jo zuten inpernuko etsai ayek esandako tokira ta Aba agufgafia lotu ta giltzapera (karzelara) eramán zuten.

X.—JESUKRISTOGATIK OÑAZE GORIAK ETA ERIOTZA

Ondo ezagutu zuten Aundizki gizatxar ayek Erkizia'tar Abak zenbateko kemena zeukan. Augatik etziran ez, noski, geldi egon berenganatzeko lanetan ; etzuten lorik egin. Asi ziran lenengo loxintxaka bere bikaintasun aundia goral'dutzen ; eta gero eskeñi zioten urteero emango ziotela 10.000 «tae» zeritzaten diruak («tae» bakoitzak amaf efeal ditu ; beraz eskeñi zioten urteko 100.000 efeal beretzat bakañik), eta esan zioten gañera Japon'go

Buruaren adiskide izango zala. Eféxil'go seme agur'gañiak, ordea, ondo zekian lufeko ondasun eta adiskidetasunen uskeria, eta zeruan nola baizeuzkan bere begi, biotz eta ondasun guziak, zeruko Bakaldun (Efége) Jaunaren adiskidetasuna lufeko Jaun guziena baño maiteago zun. Gizon ayek au ikusi zutenean amonuz beterik, altzuten onazerik ikaragañienak emateko asmo bizia artu zuten.

Étzuten il Efékizia'tar Aba beste askoen antzera, burua ebakiaz, edo suaren aurrean ipiñi ta poliki-poliki kixkalduaz edo itsasoan itoaz, ez. Eriotz oek biguñegiak ziran berarentzat, ayen iritzian. Beste eriotz gogorago bat berariz eta beretzat asmatu zuten ; oroitzeak ere dañdara eragiten digu.

Gizon bat artu zezaken añako zulo bat egin zuten lufean, eta antxe buruz bera gefiraño sartu zuten Eféxil'dar agur'gañia, gefitik burura lufean geratzen zala, ta beste gañerakoa luf goian zuti. Egoera goña da au, odol guzia burura josten da-ta. Baña oraindik biurikeri aundiagoa egin zuten ayek ; gefi ondoan alderdi banatik bi ol estu-estu erantsi zizkoten, luf gañean zuloa erabat itxiaz, ez ezeñ ikusi ta arnasarik ere ezez artu etzezan. Geyago oraindik : ol ayek aripila batekin zapaldu zituzten, indar biziagoz odol guzia bururatu zediñ, ao, sudur eta belafietatik leñ egin da botatzeraño...-! Ayek miñak !! Ayek onazeak !! Eta Eféxil'dar agur'gañiak ogeitamaf ordu onaze onetan bizirik iraun zun. Dagonila'ren (Abuztua'ren) 18'an, larunbatan, 1633-gařen urtean, atera zuten giltzape edo karze-

latik eta igandeko afatsaldean luř-zulo artatik zerura egatu zan, zihopa (martiri) burestun edo korroi edefa jaztera.

II beziñ laister Erkizia'tar Domingo Aba zihoparen soina (gorputza) artu ta surtan kixkaldu zuten auts biurtu arte ; ta gero auts guziak bildu ta itsasora bota zituzten.

XI.—ERKIZIA'TAR DOMINGO O. P. ABA AGURGAÑIAREN IZENA GUZIEN EZPAÑETAN

Labur eta lasterka bada ere azaldu ditugu euskaldun jator eta mixiolari kementsu onen bizitzako eginkizun guziak. Eziñ det ordea bukatu, Jaungoikozko gizon jakintsu ta done oni, bizi zan garaian bertan, zenbat guziak nai izan zioten aipatugabe. Kristau etziranak eta sinisgabeak guztiz goragoratu zuten bere buru azkara, izketa xamur eta goxoa ta ontasun berdingabea ikusirik.

Kristau ziranak, beriz, ze esanik ere ez dago, Norengana elduko ziran gizaxoak alako ekaitz garaian, Erkizia'tar Aba biotz bigunana ez bazan? Au zan naigabe guzietan ayen aita ; gogoko gaitzetan sendagile arduraduna, baita artzai zintzoa ere bere ardi maiteak otsoen atzaparetatik zaitzen, eta mixiolari eziñ aspertua sinisdun eta sinisgabe guziak zeruratzen. Kristau guziak, edestiak dionez, Paulo Deunari bere entzuleak entzun oi zioten bezelaxe, entzuten zioten egunero, ta kristau zira-

nak ez ezik lekaide edo erlijioso asko ere aiñ itzaldi bero ta argiak entzutera zetorzkion beiñ baño geyagotan.

Oez gañera baziran alderdi ayetan diru egitera jundako Portugal'daí asko, ta oek ere Eféxil'go seme aguígafia goraldutzen erabili oi zituzten mingañak, eñanaz, Jaungoikoa onetsi edo bedeinkatze-ko zala mixiolari onen ontasun, donetasun eta biotz beroa, ta Efkizia'taí Abak bakañik beste lekaide (erlijioso- guziak baño geyago egiten zula Japon'en.

Garagafila'ren 7'an, 1867-gaíen urtean Eleiz Ama Deunak Zorionduak izan ziran Japon'go ziñopa (martiri) asko ; baña 1630-gaíen urteraño il-dakoak bakañik : ez beraz Efkizia'taí Aba. Baña laister íkusiko degula uste degu ziñopa ospetsu au, Eféxil'daí bikañen au, gure eleizetan goi-goratuta. Ala bedi.

Bitartean eta beti gora dezagun euskaldun guziok biotz biotzetik Efkizia'taí Domingo O. P. Aba Aguígafia ! Gora Ernio baño sendoago Eféxil'go seme jatoía ! gora Japon'daíen mixiolaria ! gora ta gora Jesukristoren ziñopa afigafia !

GEIGARÍA

—

Erkizia'tar Domingo O. P.

agurgaríaren eskutitza bere aitari




Jesus Maria

«Nere aita maite maitea : Beste batzuetan eskutitz (karta) geyago egin dizkitzut, nik nai beziñ safi izan ezpada ere ; sinisgabeen alderdi oetan ez duakate bada, batez ere, lekaideak (erlijiosoak) nai ainbestetan egiterik, beiñ bakarik bada ere eskutitzakin arkitu ezkerro erlijiosoren bat, bizitza kentzen diote ta. Egiten dizudan guzi guzia, zure seme naizenez, neri dagokidana da, ta beste eratan ezin poztu ta atsegindu zaitudan ezkerro, nere eskutitzak atsegingarí izatea nai nuke. Ezin dizut nere seme-biotza erakutsi ta ezin lagundu ere, Jaungoikoagan ez bada ; ta auxe, bai, auxe aztu gabe egiten det nere otoitz kaxkaréetan ; naiz bizirik, naiz ilik bazera zugatik eskatu, ta baita nere aide ta

alderdi oyetakoengatik ere, guziok maite maite zaituztet, bada, biotz biotzetikan.

Zortzi urte beteko dira laister Japon alde oetara eldu nitzanetik, eta ogeyen bat ba-dira emen kristauen kaltetan bufuka gogoŕean asi ziranetik. Garai ontan naiz lekaide ta naiz efitafetan, ; amaika ziñopa (martiri) izan dira ! egunetik egunera dijoa zofozten eta gogoŕtzen erasoaldi au ta bi urte oetan ezin adirazi diteken añakoa izan da. Igazko Gara-garila'ren azken aldean Agintari biotz-beltz-okerdun bat' etofi zan, oraiñ ni bizi naizen uri ontara. Luŕez eta itsasoz bide guziak itxi zitun, uritik iñork iges-egin etzezan eta orduan ezin adirazi alako oñazez kristauak mindutzen asi zan. Alaz ere etsai zaitzalerik agiri etzan unetxo baten 1.000 sendi baño geyago beren ondasunak utzi ta, ainbesteko goŕtoa arkituko etzuten beste eŕialde batzuetara iges-egin zuten ; an eziñ izkutatu zitezkenak, beŕiz, basoetatatu ziran, jateko ere eurekin ezeŕ eraman gabe. Baña ezeŕ etzuten auferatu ; etsaiak kristau beartsuen etxeetara biñdu ziran, bada, ta etzun iñork iges-egiterik izan.

Ekaitz au piska bat baretu zanean. lekaide edo erlijioso bila ekin zuten, bertakoen erara jantzita izkutuan gebiltzan danok-eta. Oetakoek arkitu ta ekartzen zituanari dirua eskeintzen zioten. Azaroaren 20'an Agustindaŕ Aba bat mendi batean atxiturik lotu zuten ; eta andik iru egunera Jesus'en Lagundiko beste bat. Euskalduna zan Jesulagun au ere, ni bezela ; ta nere aiñ ondotik Jesuita au afa-



Bildain basetxea (baserria) Agurgarriaren jaiotetxearen zimenduen gainean jasoa.

patu zutela ikustean, eguerdian antzaldaturik, nora ez nekiala, norabait atera nitzan etxetik ; eta bi gizon atuta itsasontzi batean andik uruti xamafera jo-
nun. Lasto biltzen ari ziran zelai batera eldu, ta iluntzeraño lastopilapean izkutaturik gelditu nitzan, gauean beñero urira biurtzeko asmoan.

Baña urfengo egunean ere ikaraldi bat eman zidaten eta lau mutilekin itsasoz urutiratu beñ izan nun, neroni urontzi-zuzentzale ta itsas-gizon bikañena nitzala ; itsaseñteratu giñan urfengo egunean, etsaien urontziak antxe zeudela oartu gabe ; orduantxe bai nik nere azken-ordua bertantxe neukala sinistu nula ! baña etzun Jaungoikoak nai izan. Etsaiak zirala ezagutu beziñ laisteñ, izkutatu nitzan ontziaren aize-oyalpean ; eta gizon zeken ayek bañuan kristau bila ibiliañen, ni ikusi ere gabe auñera jañai zuten.

Urfengo egunean Agustin'dañ bat añapatu zuten mendiz mendi ; ta andik zazpi egunera beretako lekaide batek iges-egin zun. Aren bila zebiltzan bitartean, abiatu nitzan ni gauez oso urutira ; ta sinisgabean bildurik gabe gordeko ninduan eñi batean atsedeen nun.

Nik utzi nun urira jun zan sinisgabe bat, ni atxitzeko asmoz, baña alpeñik. Begira, bada, ze gertatu zan : ni saltzeko asmoz bidali zituzten gero gizon batzuk ; baña iñork uste etzuana gertatu zan : ni egon izan nitzan etxeko jauna etsai beraren aidezala, ta oñela orduan beintzat uts egiñ, eta ixil-ixilik beren etxera biurtu beña izan zuten. Gero etxe-

jaun oni sinismena uka zezala agindu zioten ; baña iñola ere etzula ukatu nai ikusi zutenean, ondasun guziak eta etxe-sariak kendu ta bota, zuten andik etxeko guziakin (guziak eunen bat izango ziran).

Prantzisko'tar Anai bat ere lotu zuten Mayatz aldean ; au ta beste bost lekaide, gañerako guziakin, zenbatzen badira, lareun da geyagora igokodira martiri guziak. Aurfeko ilean, befogeitabat bizirik ereak izan ziran eta ogeitamaren bat kañaberazko zeraz ebakiak. Sinismena ukatu dezaten emandako oñazeak oñaze goñiak dira benetan : batzuei ur irakiña, olio, eferxiñ eta beste erekin eta mingafi askoekiñ nasturik, burutik bera botatzen zizkien pixkaka pixkaka, soñak (gorputzak) erabat egosita uzteraño ; beste batzuk gurutziltzatu egiten zituzten ; beste batzuk bizirik gefiraño lurperatu ta apurka apurka kañaberazko zeraz ebaki, zazpi ta zortzi egunean oñaze oni iraun eraziaz. Oraindaño, bizirik eferzea beste oñazerik ez dute egokitu erlijiosoentzat ; baña oñaze au oso gogof eta luze egiten dute ! Sutokitik uruti xamar jafi ta sugafak ikutu ere gabe, bertatik datorkien berotasunez geldi geldi bizia galduazten die.

Ekaitz ontako estutasun bizienean nabil ni oraiñ. Eta auxe izango da, aita biotzekoa, uste detanez, nere azken eskutitza (karta), ta onela bada, zeruan jafen ! beti betiko alkar ikusi dezagula, beñere bata besteagandik banatzeko bildur gabe. Gure Jaungoikoagandik eta betiko zorionetik uruti loturik gauzkan negarezko bizitoki oni, ez diogu, aita,

begiratu beaŕ (ez digu kasorik egin beaŕ). Jaso gora begiak. Auxe berbera nere aŕeba maiteari ere, ta ez dedila nizaz aztu bere otoitzetan. Eskumuñak aide ta ezagun guziai. Águŕ eta Jauna zurekin bego zerura artean.

Japon'dik 1630-gaŕeneko Uŕila'ren 18'an.

Zure seme,

ERKIZIA'TAŔ DOMINGO O. P.

Erkizia'tar Domingo O. P.

Aita agur'gar'ia aldarera jasotzeko.

BEDERATZIUENA

(Bakar'ean erabiltzeko.)

Gurutze Santuaren...

Jesukristo nere Jaun...

ASIERAKO OTOITZA

Gugatik gurutziltzatutako Jesus maite maitagar'ia! Zure bizitzako neke ta eriotzako oñaze gogor'ak begiratuta, iguzu zure mirabe zintzo ta maitatzale gartsu Erkizia'tar Domingo ziñopa (martiri) agur'gar'iaaren bizitz eta eriotzako ikasbideak ondo artzeko indar'a ta laguntza, berak bezela bizitzan eta eriotzan Zu maita zaitzagun. Ala bedi.

1-go egunerako irakur'gaya.

Bizitzako zat' bat.

Eta onela egunero.

(Eskaria : Azkeneko otoitzean egiten dana.)

AZKENERAKO OTOITZA

(Aita Erkizia Zoriondunen malara eldu dediñ.)

Agertu zazu, guzi guzia dezakezun Jaungoiko
altsua, zure mirabe Erkizia'tar Domingo'ren afiga-
fizko zintzotasuna, ta jaso zazu Zugatik bere odola
ta bizia eman zuan Domingo Deunaren seme agur-
gañi au Zoriondunen malara, bera aldhreetan iku-
siaz, Zure izena beti beti gora dezagun. Ala bedi.

AMAYA

9115

30



